

BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

2567

347/2013 DEKRETUA, maiatzaren 14koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako lanpostu-zerrendak onartzen dituen Dekretua aldatzeko dena.

Uztailaren 20ko 202/2010 Dekretuaren bidez, Amurrio, Azpeitia, Eibar, Getxo eta Irungo barruti judizialeko lanpostu-zerrendak onartu ziren.

Lanpostuen zerrendak Justizia Administrazioaren barne-egiturak antolatzeko baliabideak dira. Beraz, indarrean dauden prozeduren arabera izapidetu ondoren, aldeko txostena jaso duten aldatketak lanpostuen zerrendetan sartu behar dira aldian-aldian, Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 521., 522. eta 523. artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

Hori dela eta, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren proposamenez, hala jasota baitago Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko den apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuaren 3. artikuluan, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko maiatzaren 14an egindako bilkuran gaia aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.— Dekretu honen eranskinean jasota dauden lanpostu-zerrendatan egindako aldatketak onartzea.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko maiatzaren 14an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.

2013ko ekainaren 4a, asteartea

I. ERANSKINA

Saila: Justizia eta Herri Administrazio Saila.
 Zentro kudeatzailea: Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritza.
 Destinoko Zentroa: Zerbitzu Orokor Prozesal Erkide eta Beteazpenekoa-Irun.

Aldaketa mota	Lanpostua	Dotazioa	Lanpostuaren izena	Mota	Herria	Betetzeko era	Taldea	Kidegoa	Titulazio akademikoa	Berriazko ezagutzak	Hizkuntza-eskakizuna	Hizkuntza-berezitasunaren data	Esperientzia	Lanpostuaren osagarri orokorra	Berriazko osagarria	Oharrak
Aldaketa	680001	9	Zerbitzu Prozesal Erkideko Laguntza Judiziala	G	Irun	L.O.	D	Laguntzaile judiziala	DBH gradua edo baliokidea	Berriazko ezagutzak	2	2015 urtar.		2241,96	5358,79	Komunikazio egintzak Guardiak
Aldaketa	680001	10	Zerbitzu Prozesal Erkideko Laguntza Judiziala	G	Irun	L.O.	D	Laguntzaile judiziala	DBH gradua edo baliokidea	Berriazko ezagutzak	2	2020 urtar.		2241,96	5358,79	Komunikazio egintzak Guardiak
Aldaketa	680002	7	Zerbitzu Prozesal Erkideko Laguntza Judiziala	S	Irun	B.L.	D	Laguntzaile judiziala	DBH gradua edo baliokidea	Berriazko ezagutzak	2	2010 urtar.		2241,96	5358,79	Komunikazio egintzak Guardiak
Aldaketa	680002	8	Zerbitzu Prozesal Erkideko Laguntza Judiziala	S	Irun	B.L.	D	Laguntzaile judiziala	DBH gradua edo baliokidea	Berriazko ezagutzak	2	2010 urtar.		2241,96	5358,79	Komunikazio egintzak Guardiak